



# 'BILIYIN' ESTILOA GAUEKO GIROA ALAITZEKO

The Billie Jeans talde donostiarra ariko da bihar, Lopez Mendizabal pasealekuan; estilo asko nahasten dituzte >3

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna**  
**2009-07-09**

VII URTEA 1.749. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**JOXE GABIRONDO** SEGALARIA

## «Gazteei errespetua zor zaie, atzetik baitatoz, eta asko dira, gainera»

**GAZTELU** Euskal Herriko Nazioarte Erako Segaliga Txapelketako finala irabazi zuen igandean, Zaldibian

**EUROPA** Alemanian abuztuaren 22 eta 23an izango den Europako Finalean aritzeko erabakia hartu zuen atzo 7



Herriko talde desberdinen proposamenak biltzen ari dira herriko puntu beltzak identifikatzeko, besteak beste. N.L.

## PUNTU BELTZAK IDENTIFIKATUZ

**TOLOSA** Udaleko Berdintasun Sailak Hiria Kolektiboko arkitektoak gonbidatu ditu Tolosako mapa genero ikuspegitik egin ahal izateko 6

## Santamañako IX. Kros Igoerarekin emango diete hasiera auzoko jaiei

**ASTEASU** Igandean izango da proba; korrikalariak zazpi kilometroko ibilbidea egin beharko dute 4

**GARBIÑE UBEDA** IDAZLEA

«Ez da autolaguntza liburua, ezkerra izateari buruz jardun nahi nuen»

**TOLOSA** 'Mila ezker' liburuan eskuinak gehiengoaren diren gizartean ezkerra izateaz hausnartzen du 2

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** **hitza**  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregistratu dituzten eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezarritzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Arabako etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

E **Elkarrizketa****GARBIÑE UBEDA** | Idazlea

**Kultura** » «Eskuinak gailentzen diren gizartean ezkerria izateak ekartzen duenaz hausnartu» nahi izan tolosarrak 'Mila ezker' bere azken liburuan.

**NOELIA LATABURU**

Hainbatetan entzun izan da ezkerria okerra dela. Adineko jendearen artean ia ezinezkoa da ezker bat topatzea «okerra zuzentzen» saiatzen zirelako garai batean. Aldiz, ezkerrek jeinuak direla, sormen handiagoga dutela diotenak ere badira. «Ez bata, ez bestea, ezkerria izateari buruz baino ez nuen jardun nahi», azaldu du Garbiñe Ubedak (Tolosa, 1967) bere azken liburuaren inguruan. Hendaian bizi den tolosarrak *Mila ezker* bere azken lan honen orrialdeen azterketa egin du.

**'Mila ezker' liburu argitaratu duzu. Zer topatuko du bertan irakurleak?**

Saiakera labur bat da, ez da oso saiakera konplexua edo irakurtzen zaila. Kontakizun bat da, ezkerria izatearen inguruan [ez politikoki ezkerria izatea] baina ez da ezkerrentzat, guztiontzat da. Oso arina da, anekdotarioa dela esango nuke; pertsonaia asko azaltzen dira. Ezkertasunaz libre aritzeko erronka jarri nion nire buruari.

**Zein izan da zure helburua liburu idazterakoan?**

Eskuinak gailentzen diren gizartean ezkerria izateak ekartzen duenaz hausnartu nahi izan dut, beste-

**Liburuarekin hasi nintzen ezkertasunaz libre aritzeko erronka jarri nion nire buruari**

**Topikoak apurtu nahi nituen; gauza txar asko esan dira ezkerrei buruz eta onegiak ere bai**

**Egoera asko topa ditzake ezker batek; gauzak bi aldiz pentsatu behar dituzte beti ezkerrek**

rik gabe, ez da apologia bat, ezta salaketa bat ere. Bizitza osoan zehar bildu ditut eskuinean «inposizioak» eragindako anekdotak eta horiek bildu nahi izan ditut.

**Bizitza osoan? Gaiak interesa piztu dizu betidanik, hortaz.**

Bai, mundua zuk duzun ezaugarri baten kontra doanean norberari eutsi behar diozu. Nik aldarrikatzen dut ezkerria izatea gauza guztiz naturala dela, askok kontrakoa pentsatzen zuten arren.

**Ezkerrok 'Kontxo, egia da dioena'**



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

## «Ezkerria izateari buruz jardun nahi nuen, ez da autolaguntza liburu»

**edo horrelakoak esango al dituzte?**

Bai noski, anekdotak topatuko dituzte irakurleek, baina nire asmoa ez da autolaguntzazko liburu bat eskaintzea, are gutxiago kontuhartze zerrenda bat osatzea; baizik eta ezkerria izateari buruz jardutea. Asmo horretatik abiatuta aztertut ditut hainbat gai, literatura, kirola, logika, matematika, artea, musika edo psikiatria, besteak beste. Esan bezala, ez nuen ez apologia, ez autolaguntza ez mespretxu lan bat izaterik nahi.

**Ezkerren inguruko topiko asko dago zabaldua...**

Hain zuzen, topikoak apurtu nahi nituen. Gauza txar asko esan dira

ezkerrei buruz eta onegiak ere bai, baina gehienok tartean gaude. Ezkerren artean jeinu handiak badira, baina eskuinean artean zer esanik ez gehitu du. Hain gazteak ez garenok ondo gogoratuko dugu eskolan ezkerria zuzentzen saiatzen zirela. Aldiz, alor batzuetan, psikiatrian-eta esaterako, ezkerreke apartekotasun ezaugarriak dituztela ere zabaldua dago. Honekin apurtu nahi nuen. Hala ere, bilduta nituen gauza asko ez ditut sartu.

**Izenburu horrekin, badirudi ezkerrei zuzenduriko liburu dela.**

Ez, ez. Agian ezkerrek gizarteratzeko egin behar dituzte ahaleginek bultzatuta idatzit nuen liburu

bai, baina eskuinentzat ere dago zuzenduta; edozeinentzat egokia da eta edozeini gustatuko zaiola iruditzen zait. Argi dago mundua eskuinentzat eginda dagoela. Baina zuk pentsa, ezkerrik gabe eskuinik ez litzateke izango, eta eskuinik gabe ezkerria ere ez.

**Zer egoera topa ditzake ezkerrek?**

Puf! Gauza askotan: eskolan, mahaian, eskua ematean, diru bueltak jasotzean, torlojuak estutzean, autot gidatzean, kontserba potoen tapak zabaltzean, goraiak hartzerakoan... Gauzak bi aldiz pentsatu behar dituzte beti ezkerrek. Liburuan ez nuen anekdota bat bestearen atzetik sartu nahi; hari beretik joan nahi.

» **'MILA EZKER'**

■ **Egilea.** Garbiñe Ubeda.

■ **Argitaratzailea.** Susa.

■ **Editorea.** Gorka Arrese.

■ **Urtea.** 2009.

■ **Labur-labur.** Ezkerria izateari buruz dihardu Garbiñe Ubeda kazetariak saiakera labur honetan. Artean, musikan, kirolean eta beste hainbat arlotan ezkerrekoak direnek hainbat eragozpeni nola egiten dieten aurre kontatzen du. Gehiengo eskuinekoa den munduan ezkerrekoa izateak zer dakarren hausnartzeko.

**Zuri ere arazo asko sortu al dizkizu ezkerria izateak?**

Batez ere umetan. Eskolan ni eskuina izaten saiatu ziren; gogoratzuten dut musikainstrumenturekin ere arazoak nituela; hauek eskuinentzat daude prestatuta. Oso zaila egiten zitzaidan ondo jotzea. Oro har arazoak bai baina abantaila gutxi izan ditugu ezkerrek.

**Nola bururatu zitzaizun liburu idaztea?**

Abiapuntura jo beharko banu, ezkerren inguruan zeuden lanekiko zer bait ezberdina egin nahi izatea izan zen. Ikuspegi normalago bat behar zela iruditu zitzaidan.

**Kazetaria zara lanbidez, baita ilustratzailea...**

Perejil xamarra naizela esango nuke, besterik gabe. Euskarazko komunikabideetan urteetan aritu naiz lanean eta ilustrazio batzuk ere egiten ditut. Guztietan sentitzen naiz eroso.

**Hendaian bizi zara orain. Tolosa urrutiegi, ezta?**

Beti saiatzen naiz jaioterria gerturatzeko, batik bat lan kontuak zirela-eta egin nuen alde Tolosatik, baina harremana mantentzen saiatzen naiz.

**@ Eztabaidak, inkestak.**

«Voith Gorostidi babes ofizialeko etxebizitzetako zozketa errepikatu behar izan zuten, zenbaki batzuk bonboan sartuta ez zeudelako. Ordurako etxebizitza batzuk banatuta zeuden eta hauek baliogabetu zituzten. Nola uste duzu konpondu daitekeela hau? Nork hartu behar du ardura?». Sartu gure webgunean eta eman honi buruzko iritzia eta hartu parte beste eztabaidetan ere.

[www.tolosaldekoitza.info](http://www.tolosaldekoitza.info)



The Billie Jeans 2007an sortu zen talde bat da; donostiarrak dira eta bihar Tolosan entzuteko aukera izango da 22:30etik aurrera. HITZA

## The Billie Jeans zuzenean entzuteko aukera izango da bihar gauen

**Tolosa** » Hainbat musika estilo nahasten dituen taldeak eta jendea dantzan jartzea da beraien asmoa; 22:30ean da kontzertua.

### ERREDAKZIOA

Gaugiroko egitarauaren baitan, pixu handia du musikak, eta bihar izango da aurtengo udako lehen kontzertua. The Billie Jeans talde donostiarrak igoko da eszenatoki gainera, Tolosako giroa berotzera. Emanaldia 22:30ean hasiko da, eta Lopez Mendizabal pasealekuan izango da.

The Billie Jeans taldea 2007 hasieran sortu zen. Lau lagunek osatzen dute taldea, eta bakoitzak musika estilo oso ezberdinen eragina jaso du. Hala ere, denbora gutxi

behar izan zuten adostasun batera heltzeko eta taldearen bereizgarri den soinua lortzeko. *Biliyin* estiloa, azken batean, hainbat musika motaren arteko nahasketa da. Hauek beraien lehendabiziko diskoa osatzen duten zazpi etenalditan askatasunez banatuta daude. Lan hau taldekideek grabatua, nahastua eta ekoiztua izan da.

Diskoa grabatu zutenetik, hainbat, taberna, areto, eta jaialditan eskaini dituzte emanaldiak. Beraien zuzenekoetan, funkkartsuko ikuskizuna eskaintzen dute, rock onenaren sendotasun handienarekin, eta aldi berean, reggearen une alaienetatik igaroz. Soulararen fintasuna eta rap nahiz hip hoparen ukitu hiritarra ere baditu The Billie Jeans-en musikak. Soinu atsegin honi gehitu behar zaio taldekideen mistizaiaren eraginez sotutako

irudi freskoa. Askoren iritziak, taldearen zuzeneko birrintzailea eta itsaskorra da. Hala, festarako eta dantzan hasteko gogoia pizten dutelarik.

Une hauetan, beraien disko txikia aurkezten ari dira aukera ematen dieten txoko guztietan. Izan ere, The Billie Jeanskoen helburua da, beraien musika ahalik eta urrutien ailegatzea, diskoen bitartez, nahiz zuzenekoekin.

### Bihartik aurrera, bi erakusketa ikusgai Aranburun

Aurten Udaleko kultur sailak aurrera eraman nahi izan duen eronketako bat da, Aranburu udan ere irekita izatea. Hori dela eta, datozen asteetarako, bi erakusketa berri ikusgai jartzea erabaki dute. Hauek bihar iluntzean inaguratuko dituzte.

### » HURRENGO EKITALDIAK

#### Uztailak 10, bihar

■ **The Billie Jeans.** Gaugiroko lehen kontzertua etzi gauen izango da. Lopez Mendizabal pasealekuan izango da kontzertua, 22:30ean.

■ **Pelex.** Aranburu jauregian etzitik aurrera ikusgai izango da *Hotsez hots* erakusketa.

■ **Karlos Irazu.** Larrauldarraren eskultura eta egurgintza lanak ikusgai izango dira Aranburu jauregian, etzitik aurrera.

#### Uztailak 17, ostirala

■ **Tolosako Musika Banda.** Urteroko ohiturari jarraituz emanaldi bat eskainiko dute Gaugiroren baitan. Kontzertua Lopez Mendizabal pasealekuan izango da, 22:30etik aurrera.

## Laburrak

### Bake Epaille izan nahi duenak aurkezteko aukera

**ZIZURKIL** • Zizurkilgo Udalak ban-doa plazaratu du bertako Bake Epaille titularren eta ordezkoren hutsuneak betetzeko. Hala, deialdi publikoa egin du, postu horietan interesatuta dagoen edozeinek bere hautagaitza aurkez dezan. Informazio gehiago nahi duenak udal-bulegoetan eskuratu dezake, 943 69 10 12 telefono zenbakian. Bestalde, eskaerak aurkezteko epea hilaren 21ean amaitzen da.

### Coco Chanelen istorioa Leidorren ikusgai izango da

**TOLOSA** • Asteburu honetan, zine forumeko filmaz gain, *Coco: de la rebeldia al la leyenda de Chanel* lana ikusgai izango da Leidor antzokian. Iganetan, 19:30ean izango da emanaldia, eta astelehenean berri, ikuslearen egunean, 20:30ean. Audrey Tautou, Amelie filmeko protagonistak antzezten du film honetan disenatzaile ezaguna. Anne Fontainek zuzendu du Edmonde Charles-Roux-en *L'irreguliere* liburuan oinarrituta dagoen istorioa.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Iruia.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.:** 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474



## Txuri-gorritz jantzita Iruñara bidean

**TOLOSA** • Iruñako sanferminetara mundu osoko jendea joaten da, baita hainbat eta hainbat tolosar ere. Egunero errepikatzen den irudia da argazki honetakoa. Hau da, jende ugari Tolosako apeaderoan Iruñara joateko autobusaren zain. Zapi gorriak lepoan eta kamiseta txuriak jantzita, txukun- txukun joaten dira Nafarroako hiriburura. Ikusi egin behar, hala ere, itzulera autobusean nola etortzen diren, eta arropa garbi horiek zein kolore hartzen duten festa handiaren ostean. E. EZBZA

## 'Atari bizi' lehiaketak balkoirik ederrenak sarituko ditu

**Villabona** » Aurten originaltasunaz gain ataria tonu horia eta laranjarekin apaintzea kontuan hartuko da.

### ENERITZ IRAOLA

Atari Bizi lehiaketa herrikoia antolatatu du, aurten ere, Villabonako Udalak. Ekimen honen bitartez, etxe eta dendetako aurrealdeak landarez biziberritu eta gizakia eta naturaren arteko hurbiltze ariketa bultzatu nahi da. Udaberri osoan zehar bere atari edo balkoia ondoren zaindu duenari merezi duen saria emango zaio Santio festetan.

Udalak biztanleguztiak lehiaketa honetan parte hartzeraz gona bidatzen ditu. Atariak atontzerako orduan norberaren irajazioa izango da parte-hartzaileen muga bakarra. Hala ere aurtengoan, atari orijinal eta interesgarrienak baloratzeaz gain, kontuan hartuko da atariak apaintzeko tonu horiak edo laranjak erabiltzea. Lehen hiru postuetan geratzen diren balkoi edo atariak jasoko dute saria.

## Tolosaldeko AEKak euskara irakasle izateko ikastaroa eskainiko du

**Tolosa** » On line eta aurrez aurreko saioak konbinatzen dituen ikastaroa egiteko aukera egongo da.

### E. IRAOLA

Euskarako irakasle izateko oinarriko ikastaroa egiteko aukera izango da Tolosaldeko AEKn. Hasierako formazio metodologikoa eta didaktikoa irakatsiko dira izaera teoriko-praktikoa duen ikastaro honetan.

Irailaren 9tik urriaren 2ra izango da ikastaroa eta bi modu ezberdinetan egiteko aukera emango dute aurtengoan. Lehena, ohikoa, aurrez aurreko klaseetan oinarrituko da. Orduetgia 09:30etik 13:30era izango da. Bestea, aurtengo berrikuntza da, on line eta aurrez aurreko sei klase konbinatzen dituen metodologia erabiliko da. Ikastaroaren kostua 305 eurokoa izango da.

Euskarako irakasle izan nahi duenari, hizkuntza lantzeko metodoak ezagutu edota bere formazio osatu nahi dutenei zuzendutako ikastaroa da. AEKn irakasle jarduteko beharrezkoa da.

## Santamañako Kros Igoerarekin hasiko dira etzi auzoko jaiak

**Asteasu** » Korrikalariek zazpi kilometroko bidea egin beharko dute; izen-ematea ordubete lehenago egin ahalko da.

### ERREDAKZIOA

Asteburu honetan hasiko dira Asteasuko Santa Marina auzoan santamaña jaiak. Santamaña elkarteak, Goiballako bizilagunek eta Asteasuko Udaleko festa batzordeak antolatutako jaiak larunbatetik, hilaren 11tik hilaren 20ra iraungo dute. Jaiak hasiera emateko, ohiko moduan, Santamañako Kros Igoera izango da, mus txapelketa eta haur-jolasekin batera.

IX. Kros Igoera izango da aurtengoa. 10:30ean hasiko da Asteasuko plazatik eta herriari bi itzuli eman ostean, Santamañako baselizaraino igo beharko dute parte-hartzaileek, guztira zazpi kilometroko ibilbidea eginez. Sariak bai emakumezkoentzat eta bai gizonezkoentzat berdinak izango dira: lehenengoak 150 euro jasoko ditu, bigarrenak 90 euro, hirugarrenak 60 euro, laugarrenak 30 euro eta



Pasa den urteko probaren une bat. A. OTEZABAL

bosgarrenak 20 euro. Sari horiez gain, marka berria jartzen duenarentzat sari berezia egongo da. Orain arteko markak ondorengoak dira: gizonezkoetan Iban Sanchezek jarritakoa, 25 minutu eta 50 segundoko denbora, eta emakumezkoetan, Aintzane Argaizek jarria, 33 minutu eta 21 segundoko denbora. Iazko irabazleei dagokienez, Patxi Urizar izan zen lehena gizonezkoetan, eta laugarren urtez egin zuen gainera, eta emakumezkoetan Lourdes Oiarzabal izan zen azkarrena.

Bestalde, Santamañako IX. Kros Igoeran parte hartzeraz anitzen diren ordubete lehenago izango dute horretarako aukera, herriko plazan bertan. Izena emateko ez da ezer ordaindu beharko.

Igandean izango da Santamañako Igoera, 10:30etik aurrera, baina izango dira ekitaldi gehiago ere: arratsaldean, 17:00etan haur-jolasek izango dira, eta ondoren txokolatea. Larunbatean hasiko dira jaiak, 22:00etan, XV. Mus Txapelketarekin.

## «Herri giro paregabea» izan dela jaietan esan du festa batzordeak

**Anoeta** » Festetako ekintzetan lagundu duten guztie eskerrak eman dizkie. Oso balorazio positiboa egin dute.

### ERREDAKZIOA

Anoetako festa batzordeak «oso balorazio positiboa» egin du aurtengo herriko jaien inguruan.

Memoria Dantzan ikuskizuna nabarmendu dute lehenik; «Bertso antzerkia, narrazio digitalak, film laburra, musika eta dantza uztarturik, ikuskizun paregabea eskaini zen, bertako protagonista guztiak anoetarrak izanik, herriko jendeak sortutako eta burututako emanaldia. Jendek gainezka egon zen kiroldegia, eta txalo zaparrada handia jaso zuen ikusleen partetik».

Koadrilen Eguna ere «bikaina» izan zela aipatu dute; «nabarmen-tzekoa da izan zuen partaidetza handia, bai bazkari, afari eta arratsaldeko jokuetan ere, gero Zozongoren batukadaren errotura kaleak alaituz». Bestalde, herriko baserriar eta artisauen azokak goi «ederra» sortu zuen igande giroean, eta «baita Dantzari Txiki Eguna ere». Eskualdeko 130 haur



Txupinazoaren ostean haurren danborrada izan zen. I. GARCIA

inguru kalez kale aritu ziren dantzaz, eta ondoren emanaldi «politak» eskaini zuten plazan. «Jende asko inguratu zen ere judo eta gimnastika eritmitikako ikasleak ikustera, eta ondoren Loatzo Musika Eskolako kontzertua entzuteratzen. Eta azpimarratzekoa da umeen bazkariak izan zuen arrakasta; lehenengo antolatutako zuten aurten, eta 122 ume azaldu ziren mozortututa bazkaltzera; bestalde, aipatu dutenez, aurten beste urteetan baino mozorro gehiago ikusi ahal izan da.

Ostiraleko pala partidatan ere ikusle ugari egon zen, eta baita larunbateko sagardo dastaketan,

eguraldia lagun. Festa batzordeak aurtengo apirillean zendu zen Javier Sarasari eginiko omenaldia aipatu nahi izan du: «Bere zeregin ona eskertzeko, Loatzo Musika Eskolak eta Anoetako eta Irurako Udalek omenaldi bat egin zioten. Omenaldi motza, xume eta hunkigarria izan zen, eta eliza txiki geratu zen bere azken agurra eman nahi zioten herritar guztiak hartzeko».

Azkenik, batzordeko kideek eskerrak eman nahi dizkie era batera edo bestera festetako ekintzak aurrera ateratzen lagundu dutenei, «haien laguntzari esker herri giroa paregabea izan baita».

## Laburrak

### Galtzaundiren autobusa Baztandarren Biltzarrerako

**EUSKARA** » Galtzaundi Euskara Taldeak, Elizondon, uztailaren 19an ospatuko den Baztandarren Biltzarrera joateko autobusak antolatuko ditu. Autobusa goizeko berdeztietan aterako da autobusa Tolosaldeko tren geltokitik eta itzulera arratsaldeko zazpiak inguruan izango da. Autobuseko txartelaren balioa 12 eurokoa izango da; bazkideentzat, berriz, 9 eurokoa. Bertara joateko, Galtzaundi Tolosaldeko duen egoitza izena eman behar da.

### Hileta-meza 'Aitzol'-en alde, etzi, Gasteizen

**TOLOSA** » Hileta-meza berezia izango da etzi, Gasteizko katedralan, 12:00etan hasita. Hain zuzen ere, gerran erail zituzten, eta haien alde inolako hiletarik egin ez zieten hamalau paiz euskaldunen aldekoa izango da meza. Tarlean, Jose Ariztimuño Olaso Aitzol paiz tolosarra. Hala hileta-mezara joateko autobusa antolatuko dute. Hau Santa Klaratik aterako da, etzi, 10:00etan.

### Hiru kurtsu antolatuko ditu Peñascal fundazioak

**TOLOSA** » Soldadura, mekanizazio (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatuko ditu Peñascal fundazioak datorren ikasturterako. 16 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako dira ikastaroak, eta bakoitzak 2.000 ordu inguruko iraupena du, horietatik, 500 praktikak izango dira. Izena emateko fundazioari (Usabal industriagunean) edo 943 67 61 61 edo 943 67 51 95 zenbakietara deitu beharko da.

### Hainbat irteera uztaileen Topagunearen eskutik

**TOLOSA** » Topaguneak antolatuta, Udagaztearen barruan, irteera egingo dute gaur, Donostiako Santa Klara irlara. Beste hainbat irteera ere antolatuko dituzte uztaileko. Esaterako, hilaren 16an Olaberriako Karts zirkuitura joango dira, hilaren 18an egun pasa egingo dute Mutrikun eta Spraykada graffiti festan parte hartu, eta hilaren 22an Lekunberriko kirol abentura parkean izango dira. Irteeretan izena eman daiteke Topagunean bertan.

### Auto ilarak N-1 errepidean istripu baten ondorioz

**TOLOSA** » Auto ilarak izan ziren atzo N-1 errepidean Gasteizera norantzan istripu baten ondorioz. 18:20 inguruan gertatu zen istripua, eta hainbat auto izan ziren elkarren aurka jo zutenak. Ondorioz, errei bat itxita egon zen denbora luze, auto ilara luzeak sortu zituztarik.



## Altzon ere 'Gora San Fermin!'

**ALTZO** ● Altzoko ludotekan atzo San Fermin Eguna gogoratuz, zezenak izan zituzten. Bai, zezenak: bi urtekoek beldurra ere pasako zuten, baina koxkortuek ederki igaro zuten atzoko goiza. Tolosako Iñaki Moiuaren hiru zezentxo eraman zituzten baina aurretik etxafuegoa bota zuten. Ez zitzairen arropa zuri-gorria janzea ahaztu. Guztira 45 haurrek eman dute Altzoko Udalak eta Elordi elkarteak antolatutako ludotekan izena. Bost begirale daude ludotekan eta egunero ekainaren 29tik hasita hainbat ekintza egiten dituzte, hilaren 25era iritsi arte. Ez da harrizkoa ludotekaren arrakasta. **HITZA**

## Laburrak

### Hilaren 17an herri afaria eta haurren bazkaria

**ALEGIA** ● Alegiako jai batzordeak hilaren 17an, 21:00etan plazan herri afaria antolatu du. Aurten, txekor jatea eta menu begetarianoa izango dira. Txartelak igandera arte daude salgai 20 eurotan Etxeberria, jubilatua, Eizmendi, Kafea eta Kurpil tabernetan. Umeentzako bazkaria ere prestatuko dute egun bererako eta 14:00etan izango da. Herriko plazan bazkalduko dute (makarroiak tomatearekin eta izozkia). Bi euro balio du eta 6-14 urte bitartekoentzat da. Interesatuak Kultur Etxean eman behar dute izena, larunbata baino lehen.

### Intxurre futbol taldekoen txartelak oraindik salgai

**ALEGIA** ● Hilaren 24an Alegiako Intxurre Kirol Elkartekoek saltzen ari diren txartelen zozketa egingo dute. Oraindik ere badira salgai euro eta 50 zentimoan bakoitza. Sariaren baitan, besteak beste, Donostiako Maria Cristina hotelaren egun batean lo egitea eta gosaltzea eta Juanito Kojuan afaltzea sartzen da.

### Tindouf-eko errefuxiatu eremuko irudi erakusketak

**HERIALDE** ● Hernialdeko ostatuak argazki erakusketak bat prestatu du ostatuan bertan, datorren astelehenera arte eta tabernako ordutegia barruan. Kasu honetan, erakusketan *Sahararrak, herri bat erbestean* izena eman diote. Ander Gillenearena dira argazkiak eta Tindouf-eko errefuxiatu eremuan ateratakoak dira.

### Leitzaldeko hiru herri-kirolari Iruñean ariko dira

**LEITZA** ● Gaur Nafarroako bi txapelketa jokatu dira Iruñeko sanferminetan. Nafarroako harri-jasotze txapelketan Josetxo Urrutia leitzarra ariko da besteak beste: iaz bigarren egin zuen. Hiru harri erabiliko dituzte: 125 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola, bina miutuko txandatan. Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketan Aresoko Asier Pellejero eta Santi Olano leitzarra ariko dira eta bina kanaerdiko ebaki beharko ditu aizkolarik bakoitzak. Foru plazan izango da, 12:00etatik aurrera hasita.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Garbiketa orokorrak, obra bukarako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfombra. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 944 604 (Gurutze) eta 695 708 271 (Belen).



Astehenean partida ona eskaini zuten Zeberio II-Iriartek eta Urriza-Urrutiak; Urrizak (urdinez) eta Urrutiak bikote sendoa osatzen dute. JOSEBA ZABALZA

# Gaur Altuna II.ak San Fermin torneoko bigarren finalerdia jokatu du

**Erremontea** » Zeberio II-Iriarte bikoteak 37-40 galdu zuen asteheneko finalurrekoan, Urriza-Urrutiak aurrera eginez.

### ERREDAKZIOA

Ezkurra-Badiola eta Altuna II-San Miguel bikoteek gaur bigarren finalerdia jokatu dute San Fermin jaietako erremonte torneoan, Uharteko pilotalekuan. 16:00etan hasiko da jaialdia, beste partida batzuk ere aurretik izanik. Euskal Jai Berrin (Uhart) Sandua Olioak Torneoan, beraz, Ezkurra-Badiola eta Altuna II-San Miguel ariko dira. Tartean beste erremonte par-

tida interesgarri bat izango da: Matxin III-Urrutia eta Urriza-Etxeberria III, hain zuten ere.

Gaur irabazten duen bikotea Urriza-Urrutia gazte nafarren aurka lehiatu beharko da etzi, larunbata frontoi berdinean.

Joan den astehenean Iruñeko San Fermin jaietan erremonteko Sandua Olioak San Fermin torneoko finalerdietako bat jokatu zen. Honetan Zeberio II.a aritu zen baina galdu egin zuen, Iriarte bikote zuela. Urriza-Urrutiak irabazi zuen, 37-40. Irabazten hasi ziren gipuzkoarrak, baina berehala aurrea hartu zien nafarrek (1-0, 1-6). Hamarna ere egon ziren, eta 31. tantora arte aurretik egon ziren gazteak, 31-29 iritsi arte. Ia azken

mentora arte borrokatu zuten laurak, garaipena azkenik Urriza-Urrutiarentzat izanik. Guztira 81 minutuz jokatu zuten eta ikusleek gozatu zuten, partida parekatua eskaini baitzuten.

Baina ez zen Zeberio II.a bakarrik aritu astehenean. Altuna II.ak ere jokatu zuen Etxabekin batera eta Etxabe eta Uterga-San Miguel garaitu zituzten 40-34. Dena dela, gaur dauka amezketarrik irabazi beharra, finalean aritu nahibadu behintzat.

### Gaur bigarren finalerdia

Esan bezala, Ezkurra-Badiolaren eta Altuna II-San Miguelen txanda izango da gaurkoa. Sandua Olioak Torneoko (San Fermin) fi-

nalerdian ariko dira 40 tantora. Estelarra izanik bigarren norgehiagoka izango da gaur hauen artekoa. Jaialdia Zulaika-Baleztenak

### Gaurko finalerdiaren ondoren beste bi partida jokatu dituzte, 16:00etatik aurrera

eta Endika-Zubizarretak zabalduko dute, hauek 35era jokatu. Guztira lau partida izango dira.

Finalerdiaren ondorengo partida Matxin III-Urrutia eta Urriza-Etxeberria IIIaren artekoa izango da. Bukatzeko, 30era Bereziartua-Urkok eta Matxin IV-Ionek jokatu dute.

Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak Hiria Koletiboko arkitektoak gonbidatu ditu Tolosako mapa genero ikuspegitik egin ahal izateko. Herriko talde desberdinen proposamenak biltzen ari dira orain.

## Espazio publikoa denona izateko

REBEKA CALVO

**Z**ergatik aukeratu dute emakumeek egunez etxera joateko bide bat eta beste bat, gauzez joateko? Zergatik ez dira eroso sentitzen zenbait tokitik ibiltzerakoan? Zergatik dute beldurra? Hauek dira, besteren artean, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak bideratuta egiten ari diren Hiri Debekatuaren Mapa izeneko tailerretan plazaratutako galderetako batzuk.

«Nola irudikatzen dute emakumeek, eta beraz, hiritar guztiak, seguru sentituko diren herria?», hau izan daiteke herrigune segurua garatzerakoan hirigileek euren buruei egin beharreko galderetako bat eta hain justu, Hiria Kolektiboko kideek kontutu hartzen duten irizpideetako bat Hiri Debekatuaren Mapa egiterakoan.

Hiri Debekatuaren Mapa herritako espazio publikoak zein ekipamenduak nola, nor eta zertarako kudeatzen diren aztertzen dute eta espazio hauek denon eskura egoteko proposamenak ere biltzen dituzte. Proposamen hauek jasotzeko herritako eragile desberdinekin biltzen dira eta orain horretan dabilza baita Tolosan ere.

Izan ere, espazio publikoan «segurtasun pertzepzioa» izatea ezinbestekoa dela diote eta espazio publikoak berak pertzepzio hori eragiten duela. Herri guztietan, hala ere, leku «ez segurua» daude, batez ere emakumezkoentzat; leku ilunak, bakartiak... Hiria Kolektiboko kideek horixe aldarrikatzen dute, «gureak diren espazioak, kolektiboak, geureak sentitzen ditugun plazak, kaleak eta parkeak. Elkar bizitzeko lekuak», hain zuzen. Baina azken urteetako hirigintzak beste zerbaite bilatu duela diote: «Inoren ez-lekuak. Leku aseptikoak, han bizi diren edo biziko diren komunitateen loturak aintzat hartzen ez dituztenak». Horiek horrela, emakumeek, orokorrean, ez dituzte euren espazioak kaleetan; horren adibide garbia da, esate baterako, ia ez daudela emakumeen izen-abizenak dituzten kaleak.



Tolosako planoetan puntu beltzak identifikatzen hasi dira herriko hainbat eragile. E. EZBZA

Karririk, gainera, «azkarigarotzeko» bideetan bilakatu dira leku askotan, «eguneroko bizitzari erreferentziarik egin gabe sortzen den hiriak segurtasunik gabekoa izateko arriskua du; pertsonak ez dira elkartzeko eta inork ez gaitu lagun-

**Espazio publikoak zein ekipamenduak nork, nola eta zertarako kudeatzen diren aztertzen dute**

**Azken urteetako hirigintzak «inoren ez-lekuak» bultzatu ditu, hau da, leku aseptikoak**

tzen ezagutzen ez gaituztelako». Horrela, «bizirik gabeko» leku horrietatik igarotzerakoan, gauzez, batak bat, segurtasun-gabezia gailendu ohi dela ere argitu zuten.

### Diskriminazioa

Espazio publikoa hautatzerakoan, hortaz, diskriminazioa badago, emakumeak izaten dira kaltetuenak, eta ez soilik segurtasunari dagokionez: «Sistema patriarkalaren barruan, sexuei loturik agertzen diren rolet espazio ezberdintasunak ematen dizkiete sexu bakoitzari. Alegia, gizonak espazio-

publikoan egon dira historikoki, eta emakumeak espazio pribatuan itxirik egon dira, eta jarraitzen dute askotan».

Paradoxikoki, hala ere, emakumeek gizonak baino gehiago erabiltzen dute espazio publikoa, gaur egun. Tolosan, adibidez, goizean kalera aterata emakumezko gehiago ikusi ahal dira gora eta behera enkarguak egiten, edota umeak zaintzen. «Beraz, kaleko, plazako edo parkeko bizitzari buruz jakiteko emakumei galdetu behar diegu, hiriaz egiten duten erabiltzean adituak direlako; euren beldurrak non diren jakiteko, erre-alak edota hautemandako beldurrak», nabarmendu zuten.

Arestian aipatu bezala, emakumeek ez dute soilik euren esperientziatik hitz egiten, «gertu dauzkan pertsonekin partekatzen dituzten esperientziatik baiziki». Ondorioz, «hiri seguru batean emakumeen bizitzeko eskubidea bermatzeko, arriskuaren eta segurtasunik ezaren faktoreak eraldatu behar dira. Eguneroko bizitzatik abiatuta, eurek hiriarri buruz duten jakituria baliatuta lan egin daiteke, hirian duten inplikaziotik, betiere egin beharren banaketan lagunduta eta espazio publikoan lanak erraztuta. Baina, batez ere, barneratu behar dugu emakume-

ontzat segurua den hiria guztiontzat dela segurua», esan zuten.

**Leku ez segurua identifikatu**  
Orain arte egindako tailerretan Hiri Kolektiboko xedea zein den argitzearekin batera, herrian dau-

**Sexuei loturik agertzen diren rolet espazio ezberdintasunak ematen dizkiete sexu bakoitzari**

**Gizonak espazio publikoan egon dira beti, emakumeak, aldi, espazio pribatuan**

den leku ez segurua identifikatu dituzte parte-hartzaileek.

Tolosako planoetan leku ilunak, bakartiak, zailtasunak dituztenak, konfidantza eskaintzen ez dutenak... markatu dituzte, horrela hirigile taldeak aztertu eta Udalarri-tenbideak eskaini ahal izateko. Bartzuetan ez da posible izango, hala ere: «Leku bartzuetan irtenbideak eskaini ahal ditugu, baina beste bartzuetan ezinezkoa da».

Hiri Debekatuaren Mapa osatzeko lehen urratsak hasi dira, hortaz, Tolosan. Ekimenak jarraipena izango du datozen hilabeteetan.

## Lau urteko espetxe zigorra berretsi du Auzitegi Gorenak

**Lizartza** » Epaileek ez dute onartu 61 urteko bizilagunak auzitegian aurkeztutako helegitea.

### ERREDAKZIOA

Auzitegi Gorenak Lizartzako 61 urteko bizilagunari PPKo zinegotzi bati makil batekin ukitzeagatik ezarritako 4 urteko espetxe zigorra berretsi berri du.

Lizartzarrak Gipuzkoako Auzitegiak igorritako epaiaren aurrean helegitea aurkeztu zuen, baina Auzitegi Gorenak atzera botatu du.

Emakumeak beste pertsona batzuk bultzatu zutela eta horregatik ukitu zuela makilarekin esan zuen epailetan, baina Auzitegi Gorenaren ustez ekintza egiterakoan «jakitun zela eta borondatez» egin zuela dio.

### Ez zuen kolpatu, baina «agintari» bat ukitu zuen

Epaiak, era berean, Lizartzarrak ez zuela PPKo kidea kolpatu onartzen du, baina ukitutako pertsona zinegotzia denez «agintaritzat» hartzen du eta gertatu zeneko egunean ekitaldia «politikoa» dela ere nabarmentzen du.

Gertaera PP alderdiko Regina Otaolak eta alderdi bereko beste zinegotzi batzuk Lizartzako alkateza «ostaldu» zutela salatzen egindako ekitaldian jazo zen, 2007ko irailean.

Lizartzarrak 61 urte baditu ere epaia derrigorrez bete behar duela dio epaiak eta abokatuek ez dute erabaki oraindik helegitea aurkeztuko duten.

### Bi urteko espetxe zigorra Otaola «mehatxatu» eta gero

Gogoratu behar da era berean, emakume honena ez dela Lizartzan egon den kasu bakarra. Orain hilabete batzuk beste bizilagun bati bi urteko espetxe zigorra ezarri zioten Regina Otaolak bere aurkako salaketa egin eta gero. Otaolaren hitzetan, Lizartzarrak «mehatxatu» egin zuen «Otaola hil egingo zara» esan ziolarako.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**E Elkarrizketa**

**JOXE GABIRONDO** Segalaria



galari egon behar du esanaz joan ginen eta hitzekin esplikaterik ez dagoen ustekabekoa hartu genuen. Segalari onak zeuden bertan

**«Hitzez azaltzea zaila da segaren inguruan Alemanian antolatzen duten festa»**

eta ikasteko berriz izugarri genuela ikusi genuen. Bai hango girotik, biltzen den jendetza kontuan hartuta, eta baita antolakuntza aldetik ere, ikusgarria baitzen. Izugarria da honen inguruan antolatzen den festa.

**Modu tradizionalean, Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen duela egun gutxi. Lizaso asteasuarrak irabazi zuen. Goikoetxea eta Artega bertan zirela kontuan hartuta, ezustekoa izan al zen?**

Niretzako ez da ezustekoa izan. Duela 20 urte txapelketetan ibili zen eta orduan ez zuen jarraitzeko animorik eduki. Baina Nazioarteko Eran segalari peto petoa dela erakutsi du, oso segalaria dela. Gero prestaketa aldetik oso ondo dago eta besteek maila oso polita eduki arren, irabazteko aukera handiak ikusten nizkion.

**Segan aizkoran bezala: beteranoak nagusi?**

Herri kiroltan ia betiko kontua da hori, 40 urtetik gora joan eta punta-puntan ibiltzea. Alde batetik ez da normala, ezta gutxiago ere. Baina jendeak askotan errezege hitz egiten du: gazterik ez datorrela, segalaritza galtzeaz dagoela... Ni ez naiz irtzi hortokoa. Argi dago sega eta orokorrean herri kirolak ez daudela momentu onenean, baina jendea hor dago eta prestatu egiten da. Aizkoran eta segan egiaztatuta dago adinean aurrera joan arren, esperientziarekin eta fisikoki ondo egonda, punta puntan egon zaitezkeela. Markak begiratzea besterik ez dago. Baina bestalde, gazteei ere errespetu bat zor zaiela iruditzen zait. Segalaritza amaitzera dihoala askotan entzuten da, hori esaten dutenei gonbidapena luzatuko nieke: denon artean pixka bat lan gehiago egin dezagun. Gazteak badatoz eta mordoxka dira gainera. Beteranoak eta gazteak hor gabilta nahasturik eta oso maila politean gainera.

**«Gazteei errespetua zor zaie, badatoz eta mordoxka dira»**

**Gaztelu** Atzo bertan erabaki zuen Alemaniara joatea Joxe Gabirondok. Eskal Herriko Nazioarte Erako Segaliga txapelak aukera hori ematen zion.

**ASIER IMAZ**

Duela 14 urte utzi zuen lehen aldiz segalaritza Joxe Gabirondok (Gaztelu, 1961). 2006ean itzultzea erabaki zuen. Bi urtetan 2 Gipuzkoako txapel eta Euskal Herrikoan bi hirugarren postu lortu zituen. Baina esperientzia «oso polita» izan arren bere buruari jartzen zion presioa «neurritz kanpokoak» zela onartzen du gazteluarrak. Hala eta guztiz ere, gustura aritzen da oraindik Nazioarteko Eran. Horren adibide da bere azken txapelak, igandean Zaldibian lortu zuen Euskal Herriko Nazioarte Erako Segaliga.

**Txapel bat gehiago, ala berezia izan da azken hau?**

Urteak aurrera doazenean eta txapelak ia mordoxka dituzunean, beste bat gehiago dela ematen du, ez duela ilusiorik egiten. Baina ez da horrela: azkenekoak edo txikiak ere ilusio handia egiten du.

**Finalean zer giro topatu zenuten?**

Oso giro polita egon zen: eguraldi bikaina egin zuen, jendearen erantzuna oso ona izan zen eta partaidetzari buruz zer esan, benetan oparoa izan zela. Adin guztietako jendeak hartu zuen parte eta oso lehiatua izan zen finala.

**Nazioarteko Era azken urteetan iritsi da Euskal Herrira. Zein da modu honen eta segalaritza tradizionalean arteko desberdintasuna?**

Dena da erabat desberdina. Tradizionean ordubeteko saioak egiten dira, apustuetan agian bi ordukoak. Nazioarteko Eran 100m2 ebakitzen dituzte gizonezkoek eta 35m2 emakumezkoek. Denbora aldetik 2-3 minutuan ibiltzen zara, belarraren egoeraren arabera. Nireustez, Nazioarteko Era oso bizi da, ikusteko ere askoz erakaragarriagoa.

**Nazioarteko Eran saila bukatuta koan gelditzen da denbora, ez alderantziz.**

Horretaz gain txukuntasunaren eta azkartasunaren artean oreka bat bilatzen da Nazioarteko Eran. **Traditionalean ere txukuntasuna hasi da kontuan hartzen, faltak dira medio.**

Azken urteetan sartu da arautegi hori. Nolabait ere berrikuntza hau Nazioarteko Eratik dator gainera. Txartelak eta txukun ebakitzeko modu hori pixka bat era honetatik kopiatu da. Eta segalariak horretara oso ongi moldatzen ari direla esan beharra dago.

**Zer esan nahi du txukun mozteak?**

Hemengo era beti izan da saila pasa eta kiloak ebakitzea. Batek abilezia handiagoa bazuen saila ebakitzeko eta aurrea hartzen baldin bazuen, beste guztiak atzetik segika ibiltzen ziren. Horrek izugarriko lardaxkeria ekartzen zuen eta urtetik urtera handitzen zihoan gaizki ebakitze hori gainera. Gero entrenamenduetara belardi bila joaten ginenean, baita kompetizioetarako ere, lortzeko arazoak ekartzen zituen. Belardia gaizki ebakitzen baldin baduzu, jabeak ere azkenean atentzioa deitzen dizu, gero berak aritu behar duelako. Ikusleen artean ere gero eta gehiago entzuten zen hori ez zela formalitatea: belarra ebaki eta bildu ondoren, oso gaizki ebakita zegoela askotan ikusten zen. Itxura oso txarra gelditzen zen belar-

Beharragatik erabaki dut azkenean. Atzo (herenegun) gauean Almitza Elkarteko kideak deitu zidan, Austrian eta Alemanian hemengo txapelketa noiz bukatuko zen zain zeudela esanaz. Euskal Herriko ordezkarien izenak behar omen zituzten dena prest edukitzeko. Joan edo ez joan erabakitzeko azken epea gaur (atzo) zela esan zidan Almitzako kideak. Txapelketako lehena eta bigarrena ez baldin baginen joaten, ez zela formala esan zidan, arrazoi handiren bat ez baldin bazegoen. Azkenean beraz joatea erabaki dut.

**Lehen ere joana zara horrela. Bizipen politak ekarriko zenituen, ezta?**

Hitzekin azaltzea oso zaila da. Gu lehendibiziko aldiz 1996ean izan ginen bertan. Alemanian zein se-

**«Txukun ebakitzeak era askotako abantailak ematen dizkio segalaritzari»**

soroan. Txukun ebakitzeak berriz, era askotako abantailak ematen dizkio segalaritzari.

**Euskal Herriko Nazioarte Erako txapelak Alemaniara joateko aukera eskaini dizu. Baina zalantzazaude joan edo ez joan. Erabakirik hartu al duzu?**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 034. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai  
Euskarari

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Zinema

■ **Tolosa.** *Man on wire* filma Leidor aretoan gaur 19:30ean eta larunbatean 22:30ean, jatorrizko bertsoan, zine-forumean.

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Igandean Arcena mendizerrara (Valderejon, Cueto eta Mota mendiak igoz) joango da Al-pino Uzturre elkarteak. Izen-ematea, elkarteak (943 652789, alpinozturre@hotmail.com).

### Kirola

■ **Tolosa.** Hilaren 11n arroila jaitsiera antolatuta du Oargik La Leze kobazuloan (Araba). Doan Oargikointzat eta 4,5 euro ez bazkideentzat. Izen-ematea, 688 698642 telefono zenbakian.

### Jaiak

■ **Tolosa.** Zerbeza edateko festa izango da Berazubin hilaren 18an (zerbeza mota desberdinak, kodi- llo eta saltxitxak, 5 euro). Izen-ematea, Berazubi elkarteak.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Udako liburategia Usabal igerilekuan, astelehenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.

### Irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra irteera antolatuta du Harizpek. Izen-ematea, elkarteak (pentsio osoa 257 eta 262 euro).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 676013.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunik.



Astebete eskas bete da ofizialki beherapenen sasioa hasi zenetik, baina dagoeneko prezio erdian topa daitezke produktu asko. N. LABURU

Pasa den uztailaren 1ean hasi ziren ofizialki merkatariek merkealdiarekin; hala ere, lehen egunetik beherapen altuak eskaintzen dituzte, prezio erdiraino heltzen direnak.

# Merkealdirik merkeena

### ERREDAKZIOA

**E**uskal Autonomia Erkidegoko biztanle bakoitzak 120 euro omen ditu gastatzeko beherapenetan. Kontsumitzaileak babesteko elkarrekin eman du datu hori. Inoiz baino beherapen handiagoekin hasi omen da, gainera, aurten udako merkealdia. Uztailaren hasieran ireki zen ofizialki beherapenen sasioa, nahiz eta San Joan jaietarako erakusle- leiho gehienetan beherapenak iragartzen zituzten kartelak ikus zitezkeen.

Baina, benetan saltzen al da hainbeste? Saltzaileen esanetan, une ezin hobea da; alde batetik, oraindik tamaina aldetik, baita ko-

lore eta estilo aldetik ere aukerazabala dago; «horrela erosleak aukerara handiagoa du etxera zerbait eramateko». Bestetik, orain lehen egunetik garai batean merkealdi amaieran topatzen ziren beherapenak daude.

Kontsumitzaileen elkartetik aholkuak ematen dizkiete erosleei. Batetik, merkealdia sasioa izanagatik eskubide berdinak dituztela gogoratu diete; esate baterako, beherapena zenbatekoa den argi azaldu behar da. Bestetik, beharrezkoa dena bakarrik erosteko gomendioa egiten diete. Horretarako aurrez zerrenda bat osatzea aholkatzen diete, behar duten gauzekin.



Etoko txiki entzatzat ere badira beherapenak. N.L.

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak